

# Alpinist54



Alpinist 54 Chema Agustín artista plastiko, mendizale eta eskalatzailearen azken proiektua da. Karta sorta formatuan alpinismoaren, eskaladaren, zortzimilakoen eta esplorazioaren historia biltzen duen ariketa. 54 kartetako bakoitza arkatzez eta txinatar tintazko marrazkien bidez egin dago, DIN A3 formatuko paper gainean konposatuta. Karta-jokoa liburu batekin osatzen da, QR kodearen bidez deskarga daitekeena, liburuan karta bakoitza garatzen da. Liburuaren egileak Sebastián Álvaro, Eva Martos, Alex Puyó eta Chema Agustín dira.

Liburu digitala hainbat hizkuntzetara itzulita aurkezten da, Euskara eta Aragoiera tartean. Alpinist 54-k mendizaletasunaren esentzia eta abentura biltzen ditu, deskubritu gabekoaren izpiritu erromantikoa bilatuz. Chemaren izpiritu kontenplatiboak gidatutako argitalpen bat da, erreferentzizko hainbat liburu oparitu dizkigu egileak, "Riglos vertical" horien artean, dagoeneko 4. edizioan. Edo "Ordesa, álbum ilustrado", argitaratu berria. Bere "Pirineos Perineus Pirineoak Pyrenées" poema bisualen bilduma ere gogorarazten dugu hemen. Edo bere lehen garaiko olioeko paisaiak.